

Hiru otso : ustiapen pedagogikoa

1 - Zendako otsoei buruzko ipuinak ?

Ipuin tradizionalak haurra handitzen laguntzen du irudimenari esker.

Ipuinak irudimenari eta irudikatze kolektiboari lotzen gaitu, eta sorkuntza bultzatzen du.

Ipuinak munduaren deskubritzen eta ezagutzen laguntzen du.

Identitatea azkartzen du, taldekide izateari ohartarazten laguntzen du, eta kultura baten eraikitzen ere.

Ipuin tradizionalak jokaera soziala dute. Jendartea bateratzen dute.

Otsoak haurren beldurrak eta kezkek kontuan hartzen ditu.

Beldur arkaikoak iruditan eta hitzetan jartzen ditugu, beraz, haurrak beldurrak aipatuko ditu, eta beldur horietaz ohartuko da. Biziki garrantzitsua da haurrentzat haren beldurrez mintzatzea. Haur ttipiek beldurrarekin jostatzea maite dute, eta beldurtzea ere.

Otsoak tirria handia pizten du ikasleen baitan. Ondorioz, entzuteko, irakurtzeko, eta liburuei begiratzeko emeia handia dute haurrek.

Otso estereotipoaren hautua ez da ustegabetarik egina : ikusiz zer interes sortzen duen otsoak, haurraren inplikazioa oraino handiagoa izanen da irakurketan.

Hiru otso istorioen artean, desberdintasun handiak agertzen dira. Ondorioz, haurrengan galderak piztuko ditu.

Hasteko, lehen bi ipuinekin, otso estereotipoa (gosetua eta gaixtoa) identifikatuko genezake, haurrekin.

Gero, hirugarren ipuinean, ikasleak harritaraziko ditugu, besteak ez bezalako otso bat erakutsiz.

Hiru ipuinen aztertzeak harridura eta eztabaidak sortuko ditu.

2 - Hiru xerri ttipi ipuinaren interesa

Hercules-en mitoak galdera hau pausatzen du : bizian, errealitatearen printzipioari jarraikiz ibili behar da ala plazeraren arabera ?

Hiru xerri ttipien ipuinak ber galdera pausatzen du.

Ama ikastolan, hiru xerri ttipien ipuinak :

- **haurrari handitzeko abantailak erakusten dizkio**, bai eta :

- **aitzinetik ongi gogoetatuz, oztopo larriak gainditzeko ahal direla.**

Xerri gazteenek plazeraren printzipioan bizi dira, eta segidan kausitu plazera nahi dute, errealitatearen landerrari ohartu gabe.

Hirugarren xerriak, zaharrenak, errealitatearen printzipioa segitzen du : jostatzeko gogo geroago uzteko gai da, eta gerta daitekeena gogoetatzen du. Otsoaren jokamoldea aitzinetik asma dezake. Beraz, bera baino azkarragoak direnei nagusitzen ahal zaie. Otsoa menperatzen ahalko du.

Haurrak, xerriei identifikatzen dira, eta ohartzen dira bilakaera bat gerta daitekeela. Esperantzarekin amaitzen da ipuina, eta hurrek ikasten dute ongi gogoetatuz azkarragoei nagusitzen ahal zaiela.

Haur gazteenek ere hiru xerriak pertsonaia bakar bat baizik ez direla ulertzen dute : pertsonaia bat, bizi garai desberdinetan (ikusiz ber hitzekin mintzo zaizkiola otsoari).

Hiru xerri ttipien ipuinak haurraren irudikapena aldatzen du, bere garapenean ere. Haurrari tokatzen zaio ondorioa barneratzea. Horrek du handitzen laguntzen.

3 - Otsoa, axeria eta ahuntzak ipuinaren interesa

Jean-Francois Cerquand (1816-1888) Paueko akademiako ikuskariak, ahozko tradizioa idatziz bildu nahi zuen. Zuberoako eta Nafarroa Behereko lehen mailako irakasleei ipuin bilketa baten egitea galdetu zien. Gero, argitaratu eta komentatu zituen.

Ferdinand Barbek zioen : « Bilduma hortan, eta Webster apez anglikanoarenean, arrunt jatorrizko ipuinak agertzen dira. »

Ipuinak, euskal ahozko literaturako altxorak dira.

Wentworth Webster : « Ipuin eta kondaira anitz badaude Euskal Herrian. Neguan kondatzen zituzten, artoa xuritzen aritzean. Beti

ironia edo umorea zerbait bada... Familia bakoitzean edo lagun talde guzietan, beti agertzen da kondaira bat... Ipuin zahar horiek, giristino garaikoak, eta batzuk zelten inbasioaren garaikoak izan daitezke... ».

Otsoa, axeria eta ahuntzak, Marie Naguilak kondatu zuen, Bustinzen, 64 urte zituelarik. Jauregui jaunak zuen transkripzioa egin.

Otso batek ahuntzak jan gogo ditu. Azkenean, ahuntzen etsipena ikusirik, otsoak apairua biharamuneko gibelatzea onartzen du, pittikak ekartzen badizkiote.

Axeriak ahuntzak lagunduko ditu, jukutria bat asmatuz.

Biharamuean, ahuntzak ikusirik, otsoa, bera da eskapatuko...

Hemen ere, hiru xerri ttipien ipuinean bezala, otsoa estereotipoa da : gosetua eta gaixtoa.

Hemen ere, ongi pentsatzeak landerretik salbatuko ditu.

4 - Otso gosetua ipuinaren interesa

Ipuin berri honetako otsoa usaiakoetarik arras desberdina da : gormanta da eta egiazko oilasko bat jan nahi luke, baina jendarte moderno eta hiritarraren biktima bihurtzen da.

Haurak harrituak edo harrapatuak izanen dira ipuin horrekin, eta eztabaidak piztuko ditu.

Gure jendartearen aipatzeko eta aztertzekeo parada ere izan daiteke.

5 - Otso ipuin horiek nola erabil ikasgelan ?

Manera desberdin anitz badira :

1 - Literatura saileko gaitasunak : literatura testuak irakurri, eta irakurle bilakatu.

2 - Artearen sailean, arte plastikoari doazkion gaitasunak landuko dira.

3 - Hezkuntz musikalaren gaitasunak hunkituko dira.

Hiru otso izeneko bilduma honek erabilera asko dauzka, arruntena ahantzi gabe : ipuinak soilik plazerez entzun edota irakurri.

Horra hor **idea proposamen bat**, irakurketa gaitasunaren inguruan :literatura testuak irakurri eta irakurle bilakatu.

Otsoaren gaiak haurren inplikazioa irakurketan azkartzen du.

Otsoaren pertsonaia desberdina da ipuin batetik bestera ; eztabaidak sortuko ditu ikasgelan, eta irakurleak duen aitzinetik ikusteko gaitasuna aberastuko.

Hiru ipuinen azterketaren ondotik, idazteari lotu lanei pasatzen ahalko da, maila desberdinetan, haurren arabera.

Urraspidearen antolaketa :

Lehen fasean, **ipuin deskubritzea izan liteke** : *Hiru xerri ttipi eta Otsoa, axeria eta ahuntzak.*

Posibilitate anitz badaude :

- * CD-aren entzutea, edo irakurketa, irudirik gabe,
- * ipuina kondatu, irudiak erakutsiz,
- * CD-a entzun edo ipuina irakurri, marrazkiak erakutsiz.

Hiru xerri ttipien ipuinean, interesgarria litzateke haurrek gogoz ikas dezaten xerrien eta otsoaren arteko solasaldiak.

Hastapenean, haurrek irakaslearekin betan erran lituzkete.

Gero, irakasleak narrazioa irakur lezake eta haurrek bakarrik solasaldiak erran.

Azkenik, haurrak bi taldetan bana daitezke : talde batek otsoaren hitzak errango lituzke, eta bertzeak xerrienak.

Bigarren fasea, **estereotipoaren identifikatzea** :

- * ipuinak aztertu eta aipatu,
- * otsoa aipatu,
- * otsoaren pertsonaia aztertu.

Azken fasea, **estereotipoaren alderantzizkoa aurkeztea izan liteke, Otso goretuaren** istorioan.

- hipotesiak egin, eta asmatu : ea zer egingen duen otsoak ipuin hortan,
- haurrek ez dute pasiboki goitatu helduak kondatua. Bertze zerbaiten beha izanen dira. Jokabideen aitzinetik ikusteko bidean dira haurrak.

Hiru otso : pistes d'exploitation pédagogique

1 - Pourquoi proposer deux contes et une histoire... de loups ?

Le conte offre à l'enfant les moyens de grandir par le biais de l'imaginaire.

Plonger l'enfant dans l'univers du conte, c'est le rendre riche d'un monde intérieur nourri de symboles et de représentations mentales.

Le conte nous renvoie directement à l'imagination et à l'imaginaire collectif, et stimule la créativité.

Le conte permet aussi de découvrir et d'appréhender le monde.

Il renforce la conscience d'appartenir à un groupe, à une identité, et participe à la construction d'un patrimoine.

Ces récits ont un rôle social. Ils unifient la société.

Le personnage du loup prend en compte les peurs et inquiétudes des enfants.

Mettre des images avec des mots sur des craintes archaïques aide à formuler ses peurs et incertitudes, à en prendre conscience. Cela permet donc d'y répondre.

Il est important pour l'enfant qu'on parle de ses peurs.

Les petits aiment jouer avec la peur, et se faire peur.

Le personnage du loup suscite un grand enthousiasme chez les élèves, qui prennent plaisir à entendre, lire et feuilleter les albums de loups.

Le choix du personnage stéréotype du loup n'est pas anodin : c'est l'impact que ce personnage a généralement sur les enfants, et par conséquent son effet sur leur implication dans la lecture.

Il existe une réelle ambivalence de caractère des loups dans les trois propositions, qui devrait susciter chez les enfants un questionnement.

Dans un premier temps, au travers des deux contes, on identifiera le **stéréotype du loup** (méchant, affamé) avec les enfants.

Dans un second temps, avec la troisième histoire, l'on pourra surprendre les élèves en leur présentant **un loup atypique** (gros, citadin).

L'élève pourra anticiper, puis comparer l'évènement réalisé à l'évènement anticipé.

L'introduction des trois histoires devrait provoquer chez les élèves l'étonnement, et faire naître un débat dans la classe.

2 - **Pourquoi *Les trois petits cochons* ?**

Le mythe d'Hercule a trait à ce dilemme : faut-il suivre dans la vie, le principe de plaisir, ou le principe de réalité ? Le conte des Trois petits cochons pose le même problème.

A l'école maternelle, ce conte :

- apprend à l'enfant qu'**une prévision intelligente et de la prévoyance nous permettent de vaincre jusqu'à notre pire ennemi, le loup,**
- montre à l'enfant **les avantages de grandir.**

Les plus jeunes cochons vivent selon le principe de plaisir, et cherchent des satisfactions immédiates, sans penser aux dangers de la réalité.

Seul le troisième, le plus âgé, se comporte en accord avec le principe de réalité : il est capable de remettre à plus tard son désir de jouer, et agit conformément à son aptitude à prévoir ce qui peut arriver. Il est même capable de prédire le comportement du loup. Il est donc capable de mettre en échec des êtres plus forts que lui. Grâce à la force du Moi, il peut détruire le loup.

En s'identifiant avec les petits cochons, **l'enfant apprend qu'une évolution est possible**, que l'on peut passer du principe de plaisir au principe de réalité qui, après tout, n'est qu'une modification du premier.

L'enfant qui, tout au long de l'histoire, a été invité à s'identifier, non seulement est laissé avec de l'espoir, mais **apprend que, en développant son intelligence, il peut venir à bout d'adversaires plus forts que lui.**

L'enfant, même tout petit, semble comprendre que les trois héros ne sont qu'un seul et même personnage à trois stades différents de sa vie, comme le semble le suggérer le fait qu'ils répondent tous les trois au loup avec exactement les mêmes mots.

Les Trois petits cochons influencent la pensée de l'enfant quant à son propre développement, sans même lui dire ce qu'il doit faire, en lui permettant de tirer lui-même ses conclusions. Seul ce processus est à même d'apporter une véritable maturité.

3 - Pourquoi *Le loup, le renard et les chèvres* ?

Jean-Francois (1816-1888), inspecteur d'académie à Pau, entreprit de transcrire la tradition orale. Il chargea les instituteurs de Soule et de Basse-Navarre de recueillir les légendes et récits de ces deux provinces. Il les publia et commenta.

Ferdinand Barbe disait : « Ce recueil et celui du révérend Webster sont les deux seuls qui puissent être considérés comme authentiques. »

Les légendes et récits héroïques et facétieux appartiennent au patrimoine de la littérature orale du Pays Basque.

Wentworth Webster : « Les contes, récits populaires proprement dits, sont innombrables chez les Basques. On les débite pendant qu'on épluche le maïs durant l'hiver. Il s'y trouve presque toujours un peu de sel, au moins quelque élément qui vise au comique... Dans chaque famille ou dans chaque cercle d'amis, il y a le raconteur ou la raconteuse par excellence... Ces contes des vieilles femmes et des paysans peuvent contenir des faits ou des données antérieurs, non seulement au christianisme, mais même à la grande invasion des Celtes... ».

Le loup, le renard et les chèvres fut récité par Marie Naguila, 64 ans, de Bustince, et a été transcrit par M. Jaureguy.

Il s'agit de l'histoire d'un loup qui s'apprête à dévorer des chèvres. Devant leur supplication, le loup accepte de reporter son repas au lendemain, à la condition d'y dévorer non plus les chèvres, mais les biquets.

Le renard, face au désarroi des chèvres, invente une ruse, et va donc venir en aide aux chèvres. Effectivement, le lendemain, le loup s'échappera à la vue des chèvres, savamment préparées.

Ici aussi, comme dans *Les trois petits cochons*, le loup correspond au stéréotype du méchant affamé.

Ici aussi, l'intelligence permet d'échapper au pire des ennemis.

4 - **Pourquoi Otso gosetua ?**

Il s'agit d'une création contemporaine de toute pièce, dans laquelle **le loup devient un personnage atypique**. Certes, il reste gourmand et rêve de manger une vraie poule, mais il est à son tour victime d'une société citadine, moderne et aseptisée dont il ne parviendra pas à réchapper.

Les enfants seront surpris par cette histoire, qui suscitera de vives réactions.

Une occasion aussi de parler et d'analyser notre société.

5 - **Comment utiliser, en classe, ces histoires... de loups ?**

Plusieurs déclinaisons sont possibles :

1 – au niveau de la réception des textes littéraires : les compétences visées sont celles de lire des textes littéraires, et de construire une posture de lecteur.

2 – au niveau de l’appréhension artistique : les compétences visées touchent celles des arts plastiques.

3 – au niveau de l’éducation musicale.

La collection *Hiru otso* offre de **multiples utilisations possibles exploitables en classe, sans oublier l’utilisation première de plaisir d’écoute et lecture d’histoires.**

Voici ici un **exemple d’idées, autour de la compétence générale lire des textes littéraires et construire une posture de lecteur.**

Le thème du loup favorise l’implication des jeunes enfants dans la lecture.

L’ambivalence du personnage du loup dans les trois histoires provoquera l’étonnement chez les élèves, fera naître un débat dans la classe, permettra de mettre en évidence des liens entre les albums, et favorisera la capacité d’anticiper du lecteur.

Toute cette étude peut bien évidemment déboucher sur des productions de premières interprétations, même à un niveau modeste.

Au niveau du déroulement, il pourrait y avoir une première phase de **découverte des contes** : les Trois petits cochons, et Le loup, le renard et les chèvres.

De multiples possibilités peuvent être envisagées :

- écoute du CD ou lecture sans images,
- raconter l’histoire en s’aidant des images,
- lire ou écouter le CD en montrant les images.

Dans l’histoire des Trois petits cochons, il peut être intéressant de proposer aux enfants de mémoriser les dialogues qui reviennent à chaque nouvel épisode.

Dans un premier temps, les enfants pourraient les dire en même temps que l’enseignant (ou le CD).

Puis dans un deuxième temps, l’enseignant pourrait lire la narration, et les enfants diraient seuls les dialogues.

Pour terminer, l'on pourrait diviser la classe en deux groupes qui se feraient face : l'un dirait les paroles du loup, l'autre les paroles des cochons.

La seconde phase consisterait en **l'identification du stéréotype** :

- observer les histoires, les décrire,
- parler plus particulièrement du loup,
- caractériser le personnage du loup.

Enfin, la dernière phase serait la **présentation d'un CONTRE stéréotype**, dans *Otso gometua* :

- Formulation d'hypothèses quant aux actes du loup dans cette histoire.
- Les enfants ne sont pas dans une attente passive de ce que l'adulte va bien pouvoir leur raconter, ils en attendent déjà quelque chose. Ils ont donc établi un lien d'anticipation.